

In memoriam

Georges Rebuschi (Paris, 1949 - Nancy, 2024)

—Miren Azkarate—

Euskaltzaindiak, euskarak oro har, beti erakarri ditu, zorionez, kanpoko hizkuntzalariak. Humboldt看 edo Schuchardtek izan dituzte jarraitzaileak xx. eta xxi. mendeetan ere. xix. mendean euskarak erakarri zituen Frantziaⁿ Lécuse, Bonaparte printzea, Louis Gèze, Luchaire edo Julien Vinson. Beste belaunaldi batek hartu zien lekukoa xx. mendean: Albert Léonek, Georges Hérellek, Henri Gavelek, Lafonek, André Martinetek, Geneviève N'Diayek edo Jacques Allières-ek. «Georges Rebuschi da euskararekiko interesa duen hizkuntzalarien belaunaldi berria», idatzi zuen Haritschelharek, hain zuzen ere Rebuschiren doktore-tesiaren argitalpeneko hitzaurrean.

1949ko martxoaren 10ean jaio zen Rebuschi Parisen eta Nancyn hil, 2024ko urriaren 23an. Hizkuntzalaritzan doktore-gradua lortu zuen Paris VII Unibertsitatean, 1984an argitaratu zen *Structure de l'énoncé en basque* lan mardularekin.

Sorbona Berria (Paris III) Unibertsitateko irakasle emeritua zen.

Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1991ko urtarrilaren 31n eta ohorezko euskaltzain, 2002ko azaroaren 29an.

Horraino Euskaltzaindiaren webguneak Georges Rebuschiren gainean ematen digun informazioa.

Zer merezimendu egin zituen, baina, Rebuschik gaur hemen haren hilberri txostena irakurtzeko? Frantziar hizkuntzalariren ibilbide akademikoa aztertzean,

ohartuko gara eten gabe jarraitu zuela euskara ikertzen eta emaitzak argitaratzen 35 urteko ibilbide luzean. Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo, frantsesez nahiz ingelesez.

1978an argitaratu zuen euskararen gaineko lehen artikulua, hala esango nuke, Nancyko Unibertsitateko *Verbum* aldizkarian. Eta 2013an ere jarraitzen zuen Iparraldeko euskararen zehar-galderen berezitasunak aztertzen.

Euskara ez da, ordea, izan zuen ikergai bakarra. Argitaratu zituen lanak, kongresuetan aurkeztutako komunikazioak, emandako hitzaldiak... kontuan hartuta, lau atal nagusitan bana daiteke Rebuschiren ekarpena.

Hizkuntzalaritza orokorra

Arantzazuko Biltzarraren 50. urteurrenaren harira antolatu genuen Gramatika Jardunaldian, argitaratze bidean zen *Euskararen Gramatikaz* esan nuen XVI. edo XVII. mendetik hona asko aldatu dela hizkuntzen sistema morfologiko edo sintaktikoa deskribatzeko modua. Gramatikak hizkuntza jakin baten osagaien (hotsen, formen, joskeren) azterketa eta azalpena direla onartzen dugu, baina alde handiak egon daitezke azterketa eta azalpen horiek egiteko eta emateko moduan. Garaian garaiko moldeak, kontzeptuak, izaten dituzte eskura gramatikariek eta horien arabera deskribatu eta azaltzen dituzte hizkuntzen ezaugarriak.

Garai hartako teoriez arduratu zen Rebuschi, nazioarteko aldizkarietan, liburu-etako kapitulu-etan argitaratu zituen lanetan: Chomskyren gramatika sortzaileak zekartzan berrikuntzez, Gobernu eta Uztaduraren teoriak, eta, batez ere, uztarduraz, konfigurazionaltasunaz / ez-konfigurazionaltasunaz (hizkuntza guztiek ote dute AS?) eta lokalitateaz (egitura bateko elementuen arteko gertutasunaz). Bestalde, hizkuntzen tipologiaren gaia ere landu zuen, beste batzuen artean.

Hizkuntzalaritzan garatzen ari ziren teoria eta aztermoldeak euskarara ere aplikatu zituen, jakina, berehala ikusiko dugun bezala.

Euskara ez beste hizkuntza batzuetako lanak

Hizkuntzalaritzako garaiko teoriak erabili zituen beste hizkuntza batzuek aztertzeko ere. Hor ditugu, esaterako, *Sur la notion de SV et la position typologique du nahuatl*, 1990ean edo ingelesaren sintaxiaz idatzitakoak, frantsesez *cleft sentences* delakorik ba ote dagoen, bantu hizkuntzen komunztadura auziak, edo zero erlatiboak eta komunztadura swahiliz.

Euskararen gainekoak

Lanik ugarietak, ordea, euskarari eskainitakoak dira, bi atal nagusitan bana daitezkeenak:

a) Atzerrian argitaraturiko liburuetakako artikulua, aldizkarietan argitaratuak, kongresuetan aurkeztuak zein hitzaldi gonbidatuetakoa.

Zein gai landu zituen? Ugari; gutxi batzuk baino ez aipatzearen, ez-konfigurazionaltasuna eta anaforak, euskaraz ASrik ote dagoen gogoeta, euskararen zenbait ezaugarri tipologiko, posesiboak eta euskalkien arteko aldakortasuna, alokutiboa, erlatiboak...

Atal honetako ezagunena doktore-tesia dela esango nuke: *Structure de l'énoncé en basque*, 1984an argitaratua.

b) Hemengo aldizkarietan argitaratuak, dela ASJUn, FLVn, *Lapurdumen*... Edo liburu baten edo bestean (esaterako, *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, P. Goenaga argitaratzaile izan zuena). Edo hitzaldietan.

Gaietan ez dago aldaketarik: «uztarduraren teoria, diakronia eta enunziazioa: euskararen anafora posesiboak», «subjektua, ergatibotasuna, eta (ez-)konfigurazionaltasuna: euskararen lekua tipologia generatiboan», euskararen ez-konfigurazionaltasuna eta horri loturiko zenbait fenomeno... Eta, horrekin batera, erlatiboak, perpaus korrelatiboak...

1988ko Euskara Biltzarrean ere parte hartu zuen, bai eta Haritschelhar argitaratzaile izan zuen *Hommage au Musée basque* liburuan ere.

Rebuschik euskararen gainean eginiko ikerlanez, 1997an *Éssais de linguistique basque* argitaratu zen ASJUren gehigarri moduan, ordura arte argitaratutako 15 artikulua biltzen dituen.

Euskaltzaindiarekikoak

Argi utzi zuen Georges Rebuschik bazuela harremana Euskaltzaindiarekin, ezagutzen zituela Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen lanak. *Euskera* aldizkarian argitaratutako lanez gain, bi atal nabarmendu nahi ditut:

a) Batetik, Euskaltzaindiaren biltzarretan izandako parte hartzea.

1981ean Euskalarien nazioarteko jardunaldietan

1984an Iruñean, Euskaltzaindiaren X. Biltzarrean

Nazioarteko dialektologia biltzarrean 1993an

Lafitteren sortzearen mendeurrenako biltzarrean

b) Euskaltzainen omenezko liburuetan izandako parte hartzea (ez nahitaez guztiak Euskaltzaindiak argitaratuak). Nekez aurkituko dugu omenezko edo gorazarrezko libururik Rebuschiren ekarpenik ez duenik.

Piarres Lafitteri Omenaldia, 1983an

Mitxelenaren omenez ASJUk argitaraturikoa

Rudolf de Rijken omenezko *Erramu boneta*

Andolin Eguzkitzaren omenezko *Andolin gogoan: Essays in Honour of Professor Eguzkitza* liburua.

Jean Haritschelharen omenezkoa

Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez, 2008an

Beñat Oihartzabali gorazarrean, 2009an

Eta ez dut amaitu nahi Rebuschiren ekarpenen zerrenda hau, *Comptes rendus* edo kontu-errendapenak aipatu gabe. Hasi 1978an eta 2008 arte gutxienez euskarazko lanen kontu eman zuen *Bulletin de la Société de Linguistique* aldizkarian.

Askotan *Euskera* aldizkariko lanen berri

Beste batzuetan ASJUkoak edo FLVkoak

Edo euskal gramatikenak (Haize Garbia, Wilbur, Ortiz de Urbina)

Euskal fonologiaren gainekoak (Mitxelenaren *Fonética Histórica Vascaren* bigarren argitaraldia, Hualderen *Basque Phonology*)

Orotariko *Euskal Hiztegia*

The Basque Dialect of Lekeitio, Le parler basque souletin des Arbailles: une approche de l'ergativité, Euskal Dialektologia Kongresua (1997, Gomez eta Lakarra arg.)

Hualde eta Ortiz de Urbinaren *Generative Studies in Basque Linguistics*

Hualde, Lakarra eta Trasken *Towards a History of the Basque Language*

Tovarren *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*

Patxi Altunaren eta Luis Villasanteren omenez paraturiko liburuak

Oihenarten laugarren mendeurrenaren harira argitaratu zen Iker bildumako 8. liburua.

Euskalari batzuek egun bateko lana egin dezakete euskara ikertzen, eta onak dira. Beste batzuek, urtebetez jardungo dute horretan, eta horiek hobeak dira. Badira urte luzez ari direnak, eta horiek oso onak dira. Baina badira bizitza osoa ematen diotenak euskaren ikerketa eta zabalkundeari; horiek dira ezinbestekoak. Bertold Brechten hitzak euskararen eta ikerketaren mundura ekarriz gero, zalantzarik gabe ezinbestekoen taldekoa izan zen Georges Rebuschi, 35 urteko ibilbide luzeak argi uzten duen bezala.